



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Jagoba Manterola Ruiz
Mikel Gereka Zelaia
Carmelo Ayoroa Hualde
María Izaskun Altxu Ariztegi
Javier Bereau Miquelarena

2015eko azaroaren 25ean, 19:30etan, Ohiko Osoko Bilkuran elkartzen dira Iturengo Herriko Etxean ondoan aipatzen diren zinegotziak, legeak eskatzen duen bezala deitu eta gero. María José Bereau Baleztena — Alkatea— da bilkurako burua eta idazkaria, Miguel José Belarra Tellechea. Gai Zerrendako gai hauek aztertu dira:

1. AURREKO BILKURAKO AKTA ONETSI.

Udalburuak galdetu du zinegotziren batek oharren bat egin nahi ote dion deialdiarekin batera banatu zen aurreko Bilkurako aktari. Inork ez du azalpenik egin eta aho batez onartu da akta.

Ondoren, Gai Zerrendako puntuen ordena aldatzea erabaki da aho batez.

7. ZENBAIT ESKAERA.

1. R.E.O.k eskatu du herriko sarreran dauden arbolen adarrak moztea, Ariztegi-enea etxean hezetasun arazoa eragiten dutelako. Eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da 2 poligonoko 202 partzelan dauden arbol guztien adarrak moztea, beharrezkoak diren baimenak lortu eta gero: Kantauriko Ur-Konfederazioa eta Nafarroako Gobernuko Bideetako Zerbitzua.

2. M.C.E.E.k eskatu zuen, arrain-haztegi zaharraren ondoan dauden industria-nabeen parean, errepide bazterrean, dauden platanoen adarrak moztea, egoera arriskutsuan daudelako. Beharrezkoak diren baimenak jabeak eskatu behar dituela kontutan hartuz, gaia mahai gainean geratu da, jabetza egiaztatzen ez den bitartean.

3. Iturengo Ehiztarien Elkarteak idatzia aurkeztu zuen 3 eskaerekin: *Elkarrikoan* egoera txarrean dauden arbol zaharrak botatzea, haritz amerikarren entresaka egitea eta bertan dagoen alanbrea biltzeko baimena ematea. Eztabaidatu ondoren, Ehiztarien Elkarteari ondoko hau jakinaraztea erabaki da aho batez:

- Ehiza-barrutia (kotoa) zikina dago oso, kartutxoak eta zaborra daude lurrian eta postuetan.
- Eskaera mahai gainean utziko da, ehiza-barrutia behar bezala garbitu dela egiaztatu arte.

Carmelo Ayoroa sartu da.

2. OBRAK EGITEKO LIZENTZIA ESKAERAK.

1. M.L.V.ek lizentzia eskatu zuen, *Jopeitzenea* etxeko sukalde ekonomikoa beheko solairura jeisteko, tximinia kanpo aldetik jarritz. Gaia eztabaidatu ondoren, aho batez erabaki da obrak egiteko lizentzia ematea L. jaunari, tximinia estrata aldean jartzeko baldintzapean. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga ordaindu beharko du obra hasi baino lehen. Obraren aurrekontua 2.165 eurokoa da eta ordaindu beharreko diru-kopurua, 64,95 euro.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

2. Carpintería Echeverría SLEk lizentzia eskatu du, 2 poligonoko 513 partzelan daukan industria-nabearen atzekaldean dagoen biltegia hormigoizko blokez ixteko (olanaz –toldoa- itxita dago egun). Aho batez erabaki da eskatzaileari errekeritzea bere eskaera osatzeko xehetasun hauekin: plano bat neurriekin eta itxi eta gero biltegiari eman nahi dion erabilera.

Baldintza hauek bete behar dira puntu honetan baimendu diren obrak egiterakoan:

- Hirigintzako tramitazioaren tasa ordaindu.
- Udal-araudiak jartzen duena bete.
- Hondakinen kudeatzaile baimendu bati entregatu obra hondakinak (23/2011 Foru Dekretua, martxoaren 28koa, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean eraikuntza eta eraispenetako hondakinen sorrera eta kudeaketa arautzen dituena).
- Hirugarrengoen eskubideak errespetatu.
- Eskatu den obra baino gehiago ez egitea. Espediente zigortzailea irekiko zaie lizentziarik gabeko obrak egiten dituztenei eta emandako lizentzia betetzen ez dutenei.

3. ONDARE-ERANTZUKIZUN ESPEDIENTEA.

A) Aurrekinak:

Lehendabizikoa. Iturengo Arau Subsidiarioak behin-betiko onetsi zituen Hirigintza eta Ingurugiroko Batzordeak 1992ko otsailaren 27an. Lurraldearen Antolamenduko eta Ingurugiroko Zuzendari Orokorren 2687/1992 Ebazpenean, azaroaren 9koa, indarrean zeudela esan zen (1992-12-2ko NAO).

Bigarrena. Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Kontseilariaren 377/2008 Foru Aginduak behin-betiko onetsi zuen, Iturengo 2 poligonoko 273 lurzatia eta 2 poligonoko 274, 275, 279 eta 21 lurzatiaren parte batean Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientea —Iturengo landako UE-1—.

Onespen horren aurkako altxadako errekursoak jarri zituzten J.A.I.U. jauna eta P.M.B. andreak eta T.A.I. jauna, K.I.M. andrea, I.I.M. jauna eta M.Z.S.S. andreak. Errekurtsoaren ustezko gaitzespenaren aurka jarri zuten Administrazioarekiko auzi-errekurtsoa, Nafarroako Auzitegi Nagusiari zuzendua (488/09 zenbakia).

Hirugarrena. Iturengo Udalak, 2011ko otsailaren 15ean egindako Osoko Bilkuran, hasiera batez onetsi zituen Iturengo Udalaren Plan Orokorra eta horren ingurumen ondorioen azterlana baita ere. 2011ko otsailaren 25ean argitaratu zen erabakia Nafarroako Aldizkari Ofizialean (39. zenbakia), prentsan eta Udaletxeko iragarki-taulan. Jendaurrean egon zen epean zenbait alegazio aurkeztu ziren Plan Orokorri buruz bakarrik.

2011ko maiatzaren 17an egindako Osoko Bilkuran, alegazioak erabaki eta behin-behineko onespena eman zitzaion Iturengo Udalaren Plan Orokorri. Espediente osoa aurkeztu zen Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentuan 2011ko maiatzaren 24an, behin-betiko onestea eskatuz.

Laugarrena. 2011ko urriaren 28an, 490/2011 epaia eman zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Gelak (488/09 errekurtsua), T.A.I. eta beste batzuk jarritako errekurtsua onetsiz. Epaia horrek baliogabetu zuen Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Kontseilariaren 377/2008 Foru Agindua, Iturengo 2 poligonoko 273 lurzatia



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

eta 2 poligonoko 274, 275, 279 eta 21 lurzatiek parte batean Arau Subsidiarioak aldatzeko espedienteak behin-betiko onetsi zuena.

2011ko azaroaren 24an dekretatu zen epaiaren irmotasuna.

Bosgarrena. Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Gelako Idazkaritzak eman zuen 2011ko azaroaren 24an antolaketa-eginbidea, Etxebizitza eta Lurraldearen Antolamenduko Departamentuari eskatuz, 490/2011 epaian agindutakoa betetzeko.

Seigarrena. Sustapen eta Etxebizitzako Kontseilariak behin-betiko onetsi zuen Iturengo Udalaren Plan Orokorra, azaroaren 30eko 98/2011 Foru Aginduan.

Behin-betiko onespenez sartuak zeuden, Iturengo 2 poligonoko 273 lurzatia eta 2 poligonoko 274, 275, 279 eta 21 lurzatiek parte batean —Iturengo landako UE-1— Arau Subsidiarioak aldatzeko espedientearen zehaztapen berberak. Espediente hori 377/2008 Foru Aginduan onetsia izan zen behin-betiko eta indargabetu zuen Nafarroako Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Gelako 490/2011 epaiak.

Zazpigarrena. 2011ko maiatzaren 22ko udal hauteskundeetan ez zen hautagaitzerrendarik aurkeztu Iturenen. Azaroaren 20an egin ziren hauteskundeak berriz, hautagaitzerrenda bat aurkeztu zen eta Iturengo Alkatetza lortu zuen. Beraz, Iturengo Udaleko Udalbatza berriak ez zuen zuzenean parte hartu eta ez zuen ezagutzen Iturengo Udalaren Plana aldatzeko espedienteak.

Zortzigarrena. 2012ko otsailean egin zion Iturengo Udalak alde aurreko errekerimendua Nafarroako Gobernuari, Sustapen eta Etxebizitzako Kontseilariaren azaroaren 30eko 98/2011 Foru Aginduaren aurka — Iturengo Udalaren Plan Orokorra behin-betiko onetsi zuena—, erabateko egintza deuseza zelakoan, gutxienez Iturengo landako UE-1 eremuari dagokionez, antolamendu juridikoaren kontrakoa zelako.

Errekerimenduari buruzko erantzunik ez zen hartu eta Administrazioarekiko auzi-errekurtsioa jarri zen maiatzaren 17an, lehen aipatu den Sustapen eta Etxebizitzako Kontseilariaren 98/2011 Foru Aginduaren aurka.

Bederatzigarrena. Nafarroako Gobernuak erabaki zuen 2012ko uztailaren 4an, Iturengo Udalak egindako aurreko errekerimendua ukatzea.

Hamargarrena. Udalak jarritako auzi-errekurtsioa onartu zuen 2013ko abenduaren 19an emandako 1047/2013 epaiak eta, ondorioz, 2011ko azaroaren 30eko Foru Agindua indargabetu zuen. 2014ko otsailaren 4an dekretatu zen epaiaren irmotasuna.

Hamaikagarrena. 2015eko urtarrilaren 17an aurkeztu zuen idatzia *Promociones Lindutx Baztan, S.L.* enpresak, ondare-erantzukizun espedienteak irekitzea eskatuz.

Hamabigarrena. 2015eko maiatzaren 13ko Alkatearen Ebazpenean erabaki zen, ondare-erantzukizun prozedura abiaraztea.

Egun berean eskatu zitzaion A.Z.C. letratu andreaki txosten juridikoa idaztea aurkeztutako erreklamazioari buruz. Uztailaren 20an aurkeztu zuen txostena, erreklamazio nagusia ez dela onartu behar esanez, denboraz kanpoko delako, eta erreklamazio subsidiarioa ere ez dela onartu behar, eskumenik ez duen organoaren aurrean aurkeztu delako.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Nafarroako Kontseiluak bidali zuen 31/2015 zenbakiko irizpena, 2015eko azaroaren 3koa, eta esaten du Iturengo Plan Orokorra indargabetzeagatik jarritako ondare-erantzukizun erreklamazioa ez dela onartu behar.

B) Legezko oinarriak.

Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko 30/1992 Legearen 142. artikulua.

Herri Administrazioen Ondare Erantzukizunari buruzko Prozedurak arautzen dituen martxoaren 26ko 429/1993 Errege Dekretua.

C) Kotsiderazio juridikoak.

Nafarroako Kontseiluaren 31/2015 zenbakiko irizpenak ondorioztatzen du, *Promociones Lindutx Baztan, S.L.* enpresak jarritako ondare-erantzukizun erreklamazioa ez dela onartu behar.

Aurrekariak ikusirik, Udaltzak aho batez erabaki du:

1. Bere gain hartzea Nafarroako Kontseiluaren 31/2015 zenbakiko irizpena eta *Promociones Lindutx Baztan, S.L.* enpresak jarritako ondare-erantzukizun erreklamazioa ez onartzea.

2. Erabaki hau jakinaraztea erreklamazio-egileari eta Nafarroako Kontseiluari.

4. AUZOLANEN ORDENANTZA.

Nafarroako Toki Administrazioko 6/1990 Foru Legearen 325. artikulua xedatutakoa kontutan hartuz, aho batez (arazko quoruma) erabaki da:

1. Hasiara batean onestea herritarren lana edo auzolana arautzen duen ordenantza.

2. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratzea erabaki hau, 30 laneguneko epean jendaurrean egoteko.

3. Aditzera ematea erabaki hau behin betikoa bilakatuko dela jendaurrean egon bizkitartean inork alegaziorik aurkezten ez badu.

5. ZERGA-TASAK, TASAK ETA PREZIOAK 2016RAKO.

Nafarroako Toki Ogasunei buruzko 2/1995 Foru Legean ezarritakoari jarraituz, aho batez (erregelamenduzko quoruma) erabaki da:

1. Zerga-tasa hauek onestea 2016rako:

– Hirilurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,30, katastroko balio gordin berrien gainean.

– Landalurreko ondasunen gaineko kontribuzioa: %0,678, katastroko balio gordin berrien gainean.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

– Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga: %3,00, obraren egiazko kostu osoaren gainean (obra gauzatzeko aurrekontuarena).

– Hirilurren balio igoeraren gaineko zerga: beren horretan mantentzen dira indarrean dauden indizeak eta tasak.

2. Ur banaketa eta saneamendua emateko eta zerbitzu egiteko 2016rako tasak:

2.1. Horniduraren kuota finkoa. Kontagailuaren diametroaren arabera, hiruhileko bakoitzeko:

- 10 mm bitarte: euro 2,00.
- 11tik 15 mm-ra bitarte: 2,50 euro.
- 16tik 25 mm-ra bitarte: 4,00 euro.
- 26tik 40 mm-ra bitarte: 11,60 euro.
- 41etik 50 mm-ra bitarte: 12,50 euro.
- 51tik 60 mm-ra bitarte: 23,00 euro.
- 61 mm-tik goiti: 31,00 euro.

2.2. Saneamenduaren kuota finkoa: 3,00 euro/hiruhilekoa.

2.3. Lotunearen eta hargunearen tasa eta ikuskapena egiteagatik sortutako tasa beren horretan mantentzen dira.

2.4. Horniduraren kuota aldakorra:

– A-1 tarifa: Etxeko erabilerarako hornidura kontratatuak:

- 60 metro kubiko bitarte: 0,32 euro/m³.
- 61etik 80 metro kubiko bitarte: 0,42 euro/m³.
- 81etik 120 metro kubiko bitarte: 0,84 euro/m³.
- 120 metro kubikotik goiti: 1,27 euro/m³.

– A-2 tarifa: Hornidura kontratatuak, industrian eta merkataritzan erabiltzeko:

- 650 metro kubiko bitarte: 0,37 euro/m³.
- 651tik 2.000 metro kubiko bitarte: 0,98 euro/m³.
- 2001etik 5.000 metro kubiko bitarte: 1,40 euro/m³.
- 5.000 metro kubikotik goiti: 1.59 euro/m³.

– A-3 tarifa: Ezkutuko ur-jarioen ondoriozko kontsumoak: 0,11 euro/m³.

3. 2016. urterako ezartzea auzolanetik libratzeko ordainaren zenbatekoa, diruz ordaindu beharko da, alegia, 40,00 euro auzolan bakoitzeko.

4. Erabaki honek 2016ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra eta indarra izaten jarraituko du aldatu edo indargabetzea erabakitzen ez den bitartean.

5. Erabaki hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean eta Udalaren iragarki oholean argitara ematea, behar diren legezko ondorioak izan ditzan.

6. HAUTESKUNDE-MAHAIA. ZOZKETA.

Abenduaren 20ko hauteskunde-mahaiko zozketa egin da eta hau izan da emaitza:

Mahaiburua, B.M.Z.

1. mahaikidea, J.A.M.

2. mahaikidea, J.J.E.V.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

- Mahaiburuaren 1. ordezkoa, G.O.B.
- Mahaiburuaren 2. ordezkoa, I.A.E.
- 1. mahaikidearen 1. ordezkoa, M.P.G.D.A.
- 1. mahaikidearen 2. ordezkoa, I.P.E.
- 2. mahaikidearen 1. ordezkoa, R.M.A.L.
- 2. mahaikidearen 2. ordezkoa, M.G.Z.

8. ALKATETZAREN EBAZPENAK.

Alkateak emandako ebazpen honen jakinaren gainean geratu da Udalbatza: 2015eko azaroaren 4koa, *Aurtizko Ostatuko* ordutegia luzatu zuena azaroaren 7a eta 8rako.

9. HERRIKO GAIEI BURUZKO INFORMAZIOA.

1. Udalaren web orria eta posta elektronikoa .EUS domeinura aldatu dira. Jakinaren gainean geratu da Udalbatza. Posta elektronikoko berriak egingo dira alkate eta zinegotzientzat.

2. Gasako obraren zuinketa akta irakurri da eta jakinaren gainean geratu da Udalbatza. Uraren ibilbidea eta ukitutako lursailak baldintza egokietan uztea eskatuko zaio Gas Navarrari. Bilera batera deituko zaie Gas Navarrako ordezkariari, obrari buruz hitz egiteko eta gasaren kanalizazio obra egiterakoan ordaindu zen kontribuzio bereziaren gaia aztertzeko.

3. Iragarkiak eta kartelak jartzeko 2 kortxo handi erostea erabaki da.

4. Aurtengo maiatzaren 18an eta urriaren 15ean 2 bando eman zituen alkateak eta etxez etxe banatu ziren. Bando horietan agindu hauek eman ziren:

- Etxeetako eraikitze eta konpontze obra bat egiten denean, zabortegi baimendura eraman behar dira hondakinak eta soberatu den materiala jabetza pribatuan gorde, herri lursailera bota gabe.
- Herri lursailetan eta komunaletan hondakinak bota dituztenek eta soberatu diren materialak utzi dituztenek, berehala erretiratu behar dituzte.
- Zenbait herri bide itxi dira balango, ataka edo oztopoekin eta hori ezin da egin, bideak libre egon behar dutelako. Hau dela eta, agindu hau ematen dut: herri bideak ixten dituzten balango, ataka eta oztopoak berehala erretiratu behar ditu jarri dituenak.

Bandoetan aditzera eman zen ere, agindu haiek betetzen ez dituztenei betearaziko zaizkiela eta behar diren salaketak jarriko direla.

Ikusirik M.L.G.k herri-bideak itxita mantentzen dituela Landan eta zaborrak bota dituela *Alberrokoborda* inguruan, bideak itxi eta zenbait ibilbide aldatuz, aho batez erabaki da L. andreari agindua ematea, itxi dituen bideak irekitzeko hilabete bateko epean.

5. Iñauteriak pasa eta gero jarriko da Plazan aparkatzea debekatzen duen seinalea.

10. HERRIAREN TXANDA (GALDE-ESKEAK).

Ez da galderarik egin.



ITURENGO UDALA
(Nafarroa)
31745

Eta bertzerik ezean, 22:45ak direnean, alkate andreak bilera akitutzat eman du, eta nik, neronek, idazkaria naizenez, ziurtatzen dut.